

IDEIEN KOADERNOA



# BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOA



© Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa  
2016ko maiatza

#### ARGITARATZAILEA

Ihobe, ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa  
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila  
Eusko Jaurlaritza

Urkixo Zumarkalea, 36 - 6. solairua  
48011 Bilbo  
[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)  
[www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)  
[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)  
[compra.verde@ihobe.eus](mailto:compra.verde@ihobe.eus)  
Tel.: 900 15 08 64

#### DISEINU ETA DIAGRAMAZIOA

dualxj comunicación&diseño  
[www.dualxj.com](http://www.dualxj.com)



Liburu honetako edukiak, edizio honetan, lizentzia honen bidez argitaratzen dira:  
Aitortza – Ez-komertziala – Eratorritako obrarik gabe, 3.0 Unported, Creative Commons-ena  
(informazio gehiago: [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es\\_ES](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)).

# AURKIBIDEA

1

---

SARRERA  
04. orrialdea

2

ZER DA  
BERRIKUNTZAREN  
EROSKETA PUBLIKOA?  
07. orrialdea

3

ARAUTEGIA  
ETA PROZEDURAK  
10. orrialdea

4

---

ZERTAN DATZA  
BERRIKUNTZAREN  
EROSKETA PUBLIKOA?  
12. orrialdea

5

JARDUNBIDE EGOKIAK  
21. orrialdea

## 1. SARRERA

### BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOA

Berrikuntzaren garrantzia soberan aitortua izan da nazioartean, sektore publikoan nahiz pribatuan. Europar Batasunak bere babesa eskaini dio Berrikuntzaren Erosketa Publikoari (BEP), Europa 2020 Estrategiarekin lotutako zenbait politikaren bitartez.

Berrikuntzaren Erosketa Publikoa oso garrantzitsua da, erosketa- eta kontratazio-prozesuen, teknologia berrien eta horien onuradunen arteko hutsunea estaltzen baitu. Askotan, prozedurek edo merkatuak eskaini diezazkiokeen irtenbideak ez ezagutu izanak mugatu egin dezake erosle publikoa. Berrikuntzaren Erosketa Publikoari eta Europako kontratazio-zuzentarau berriei esker, orain prozedura aratuak daude herri-administrazioei irtenbide berritzaileak hartzen laguntzeko eta beste modu batetan lortuko ez liratekeen onurak eskaintzeko.

Gainera, Berrikuntzaren Erosketa Publikoak efektu traktorea sortu behar du merkatuan, herri-administrazioek duten erosteko gaitasun handia dela eta. Horrela, erakunde publikoen aldetik prozesu eta teknologia berrien garapena sustatuko litzateke.

**"EMAITZA  
DESBERDINAK  
bilatzen badituzu,  
ez ezazu beti GAUZA  
BERA EGIN"**

Albert Einstein

## ALDEZ AURRETIKO DEFINIZIOAK

Europako Batzordeak honela definitzen ditu  
EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO  
BERDEA:


“...prozesu bat da, zeinari jarraiki agintaritza publikoak beren bizi-zikloan ingurumen-inpaktu txikia eragiten duten produktuak, zerbitzuak eta obrak eskuratzen ahalegintzen diren, funtzio nagusi bera betetzen duten ingurumen-inpaktu handiagoko beste produktu, zerbitzu eta obra batzuen orde.”

[ Ingurumen hoberako Kontratazio publikoaren gaineko komunikazioa (COM (2008) 400) ]

“BERRIKUNTZAK produktu, zerbitzu edo prozesu berri bat garatzea edo hura nabarmen hobetzea esan nahi du, ekoizpen- edo eraikuntza-prozesuak barne-izaera mugatzailerik gabe-. Merkaturatze-metodo berri bat da, edo enpresen praktikak antolatzeko modu berri bat, eta erronka sozialei aurre egitea du helburu.”

[ Europako Batzordearen Berrikuntzaren Erosketa Publikoari buruzko agintari publikoentzako gida ]





[ Iturria: Martínez Fernández, José Manuel. Kontratazio Publikoaren Behatokia. Kontratazio publiko berritzaileari buruzko agintari publikoentzako gida europarra ]

## 2. ZER DA BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOA?

«Berrikuntzaren Erosketa Publikoa (BEP) eskaeraren aldetik merkatu berritzaile berriak garatzera xedaturiko berrikuntza sustatzeko administrazioaren jarduketa bat da, kontratazio publikoa erreminta gisa erabiliz.

Honako xede hauek ditu:

- Zerbitzu publikoak hobetzea, ondasun eta zerbitzu berritzaileak txertatuz.
- Enpresa-berrikuntza sustatzea.
- Berrikuntza nazioartera zabaldu dadila sustatzea, tokiko merkatu publikoa sustapenerako bezero edo erreferentzia gisa erabiliz.”

[ Espainiako Gobernuaren «Berrikuntzaren Erosketa Publikoari buruzko gida» ]

### **EROSKETA PUBLIKO AURRE- KOMERTZIAL (EPA)**

I+G esparruko zerbitzuen kontratazioa da, administrazioaren eskaera potentzialari ahalik eta hobekien aurre egitea ahalbidetuko duten prototipoak diseinatu eta garatzeko helburuarekin. Hura komertzializazioaren aurreko ikerketa- eta garapen-fasearekin lotuta dago.

Horrenbestez, botere publikoek zerbitzu bat kontratatu edo ondasun bat erosteko premia dutenean eta sektore pribatutik datozen irtenbide «klasikoek» premia hori estaltzen ez dutenean gertatzen da Berrikuntzaren Erosketa Publikoa. Merkatuan eskala handian egoten ez diren ondasunak eta zerbitzuak izaten dira.

Mota horretako irtenbideek erosketa edo kontratazio tradizionalagoen bitartez lortuko ez liratekeen onurak eskaintzen dituzte, ikuspegi berri bat eskaintzen baitute herri-administrazioaren aldetik sortzen diren premietarako irtenbideak aurkitzeko orduan. Administrazioaren premia zehatzei eta espezifikoei ad-hoc irtenbide askoz pertsonalizatuagoak eskaintzen dizkiete.

### **TEKNOLOGIA BERRITZAILEAREN EROSKETA PUBLIKO (TbEP)**


erosteko orduan merkaturatu gabe dagoen ondasun edo zerbitzu bat erostea da, hura arrazoizko denbora-tarte batean garatu baitaiteke. Erosketa horretarako teknologia hobetu edo berria garatu behar da, eroslearen eskakizunei egoki erantzun ahal izateko.

## MODALITATEAK

Berrikuntzaren Erosketa Publikoa bi ikuspuntu hauetatik ikus daiteke: Produktu/zerbitzu berritzaile baten Berrikuntzaren Erosketa Publikoa; kasu horretan, berrikuntza produktu/zerbitzu jakin horretan oinarrituko litzateke. Eta produktu/zerbitzu jakin bat lortzeko erosketa-prozesu berritzaile bat erabiltzen den Berrikuntzaren Erosketa Publikoa; kasu

horretan, prozeduran bertan ere oinarrituko litzateke Berrikuntza.

Bi jarduketa-modalitate horiez gain, honako kontzeptu hauek bereizi behar dira: merkataritza arloko erosketak, Teknologia Berritzailearen Erosketa Publikoa (TbEP) barne; eta erosketa aurre-komertzialak, Erosketa Publiko Aurre-komertziala (EPA) barne.



## 3. ARAUTEGIAK ETA PROZEDURAK

### ARAUDIA

Europar Batasunak BEP babesten duten eta Europa2020 Estrategiarekin lotuta dauden zenbait politika ditu haren hazkundera adimenduna, jasagarria eta inklusiboa izan dadila lortzeko.

Gainera, politika horiez gain, gaur egun EBko kontratazio-zuzentarau berriez osatutako esparru juridiko berri bat dago. Horiek 2004 baino lehenagokoak ordezkatzen dituzte eta Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren eginkizuna sendotzen laguntzen dute Europa mailan.

EUROPAKO KONTRATAZIO-ZUZENTARAU BERRIEK Berrikuntzaren Erosketa Publikorako aukera berriak eskaintzen dituzte, prozedura berriak sortuz eta berrikuntza errazten duten kontratuzko teknikak eraginez.

Prozedura eta teknika berri horiez gain, oinarri juridiko sendoagoa eman zaio irtenbide berritzaileak sustatu ditzaketen ingurumen-

eta gizarte-gogoeten eta bizi-zikloaren kostuaren txertaketari, eskuratzailak ez baititu hasierako eskuratzeko-kostuak horrenbeste kontuan hartzen.


Honako hauek dira **2016an Espainiako antolamendu juridikoan jasota** egongo diren Zuzentarau berriak:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko **2014/23/EB Zuzentaraua**, emakida-kontratuak esleitzeari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko **2014/24/EB Zuzentaraua**, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko **2014/25/EB Zuzentaraua**, uraren, energiaren, garraioaren eta posta-zerbitzuen sektorean diharduten erakundeen kontratazioari buruzkoa eta 2004/17/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

## PROZEDURAK

Berrikuntzaren Erosketa Publikoan hainbat prozedura daude. Zenbait prozedura nabarmentzen dira, eta horietako batzuk Europako kontratazio-zuzentarau berrietan

berriaz arautzen dira. Prozedura bat edo bestea aukeratzeko, kasu zehatz bakoitzean eragin dezaketen faktoreak hartu behar dira kontuan, hala, momentu bakoitzeko administrazio kontratugilearen premietara hobekien egokitzen dena aukeratzeko.



## 4. ZERTAN DATZA BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOA?

Ez dago BEP egiteko prozedura bakar bat, eta Herri Administrazio kontratugilearen eta merkatuaren estali beharreko premien arabera, modu batera edo bestera jardungo da, prozedura bat edo bestea aukeratuz. Dena den, BEP bat egiteko orduan ohikoak izaten diren jarraibide batzuk atera daitezke.


### JARRAIBIDE KOMUNAK

- **PLANGINTZA**  
Prozedura dagokion epean eta beharrezko denborarekin egiten dela bermatzea.
- **MERKATUAREN EZAGUTZA**  
Oso garrantzitsua da, erosketa eta kontratazio horiek gaineratzen dituzten berritasunak direla eta.
- **KONKURRENTZIA**  
Konkurrentzia sustatzen dela bermatzea, batzuetan, aurrezkiak eta emaitza hobeak sortzen baititu.

- **PROZEDURA MALGUAK**  
Merkatuarekin interakzio malguagoa lor dadin.
- **PRESKRIPZIO TEKNIKO ZEHATZAK**  
Beren irtenbideak proposatzen dituztenean, lizitatuzaileek malgutasun handiagoa izan dezaten.
- **PUBLIZITATEA**  
Gardentasuna sustatu eta parte hartzera animatzen zaie lizitatuzaile izan daitezkeenei.
- **JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEEN ESTRATEGIA**  
Erabiliko ez dena alferrik ordaindu ez dadin.
- **KONTRATUA**  
Kontratuaren parametroak eta kudeaketa hasiera-hasieratik zehaztu behar dira.

## PROZEDURAK: Nola aukeratu egokiena?

Egoera bakoitzerako prozedurarik egokiena aukeratzeko, zenbait faktore hartu behar dira kontuan. Jarraian, aukeraketarik egokiena agertzen da, aipatutako faktoreetan oinarrituz.




[ Iturria: Kontratazio publiko berritzaileari buruzko agintari publikoentzako gida. Procurement of Innovation Platform. Iclei–Local Government for Sustainability ]

## BERRIKUNTZARAKO ELKARTEA

Kontratazio-zuzentarau berriek sortutako prozeduretako bat berrikuntzarako elkarte da, bertan sektore publikoa eta pribatua elkartzen baitira. Prozedura berri horren helburua agintari publikoek lehiaketak abiarazi ditzatela ahalbidetzea da, arazo zehatzak irtenbidea aurreratu gabe ebazteko, hain zuzen; horretarako, dagokion lekua eman behar zaie agintariei eta lizitatzaillei, elkarrekin, irtenbide berritzaileak lor ditzaten.


Jarraian, prozedura horretan jarraitu beharreko jarraibideak azaltzen dira modu eskematikoan.



## EROSKETA AURRE-KOMERTZIALA

Beste prozedura horietako bat Erosketa Aurre-komertziala (EPA) da, hau da, I+G arloko zerbitzuen kontratazioa; gainera, hura ez da Europako kontratazio-zuzentarauetan arautzen. Erosketa aurre-komertzialak ez du barne hartzen I+G fasetik eratorri daitezkeen produktuen edo zerbitzuen erosketa –I+G esparruko kontratazioa bakarrik hartzen du barne– prozedura horretatik sor daitezkeen produktuak edo zerbitzuak eskuratzeko, horretarako, beste kontratazio-prozedura bat abiarazi beharko baita, eta oso garrantzitsua da hori kontuan izatea.


Jarraian, prozedura horretan jarraitu beharreko jarraibideak azaltzen dira modu eskematikoan.



## ELKARRIZKETA LEHIAKORRA

Europako kontratazio-zuzentarau berriek arautzen duten prozedura hau honako baldintza hauetako bat betetzen denean erabil daiteke: botere esleipendunaren premiak erraz eskuratu daitezkeen irtenbideekin konpondu ezin daitezkeenean; proiektu edo irtenbide berritzaileak gaineratzea; kontratua alde aurretiko negoziatorik gabe esleitu ahal ez izatea; botere esleipendunak espezifikazio teknikoak beharrezko zehaztasunarekin ez zehaztu ahal izatea.


Jarraian, prozedura horretan jarraitu beharreko jarraibideak azaltzen dira modu eskematikoan.



## NEGOZIAZIO BIDEZKO LEHIAKETA

Negoiazio bidezko lizitazio-prozedura hau Europako kontratazio-zuzentarau berrietan arautzen da, eta arestian deskribatutako prozedurako, hau da, elkarrizketa lehiakorreko baldintza berdinetan erabil daiteke.


Jarraian, prozedura horretan jarraitu beharreko jarraibideak azaltzen dira modu eskematikoan.



## MERKATUAREN ALDEZ AURRETIKO KONTSULTA

Merkatuaren alde aurretiko kontsulta ez da berariaz arautzen Europako kontratazio-zuzentarauetan, baina horiek erabiltzeko aukera ezartzen da, betiere ondorengo konkurrentzian eragiten ez badu.

Jarraian, prozedura horretan jarraitu beharreko jarraibideak azaltzen dira modu eskematikoan.



## BALIABIDEAK

Enpresek eta herri-administrazioek Berrikuntzaren Erosketa Publikora xedaturiko fondoak eskuratu ditzakete. Fondo horiek zenbait erakundetatik datoz, eta Europar Batasunaren kasuan, errikuntzaren Erosketa Publikora xedaturiko fondoan kantitatea gero eta handiagoa da.

### Herri-administrazioak

INNOCOMPRA Programak autonomia-erkidegoetako organo publikoei laguntzen die BEP-kontratuak eragin ditzaketen proiektu berritzaileak garatzeko orduan, betiere ezi Berrikuntza Estrategian estrategikotzat jotzen diren sektoreetan.

MINECOk 300 milioi euro inguru ditu 2014-2020 denbora-tarterako, BEP ekintzak kofinantzatzeko. EGEF fondoak dira.

## Enpresak

- **Zeharka:** Administrazioarekin Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren kontratu bat esleituta. Kasu horretan, Herri Administrazioa izango da I+G+i hori erosteko funtsak jasoko dituen.
- **Zuzenean:** Enpresen I+G+i arloko Finantziatziora xedaturiko Programa Tradizionalak koordinatzen dituen CDTIK kudeatutako INNODEMANDA Programaren bitartez, Berrikuntzaren Erosketa Publikorako lizitazioekin.

## ONURAK

Berrikuntzaren Erosketa Publikoak hainbat onura eragiten ditu, are gehiago, erosketa berritzailea izateaz gain, erosketa berdea bada. Jarraian, aktoreentzako onura garrantzitsuenak azpimarratzen dira:

### Herri-administrazioarentzat

- Kostu gutxiago eta maila desberdinetako fondoak eskuratzeko aukera.
- Langileen eta erabiltzaileen asetasun-maila altuak.
- Ingurumen- eta gizarte-politiken esparruko helburuei laguntzen zaie.
- Publizitate positiboa.
- Onurak lortzen dira, patenteak ustiatuz edo enpresa mistoak ezarriz.
- Litzitazioaren emaitzak onura bat dira dagoeneko, premiari erantzuteko modu hobek eskaintzen baitituzte.

## Enpresentzat

- Bezero baliotsuen sarbidea.
- Ikerketaren aplikazioa eta espezializazioaren garapena.
- Maila desberdinetako fondoetara sarbidea izateko aukera.
- Publizitate positiboa.
- Onurak lortzen dira, patenteak ustiatuz edo enpresa mistoak ezarriz.

## Gizartearentzat

- Zerbitzu eta azpiegitura hobek, diru publikoaren arazoizko erabilera eginez.
- Enpleguaren sorrera.
- Ingurumen eta gizarte arloko erronkei aurre egiten zaie.
- ETEentzako laguntza eta ezagutzaren transferentzia beste sektore batzuetara.
- Industria berriak garatzeko aukera.

## 5. JARDUNBIDE EGOKIAK

Hurrengo atalean, Berrikuntzaren Erosketa Publikoa modu arrakastatsuan erabili duten herri-administrazioen kasu praktiko batzuk gaineratu dira. Ikus daitekeen moduan, jarduketa-mota horren aldeko apustua egin duten herrialdeen aniztasuna dela-eta, jarduketa hori gero eta hedatuagoa dago Europar Batasun osoan.

### **EROSKETA PUBLIKO BERDEAREKIN DUEN HARREMANA**

Jarraian azaldutako kasu praktikoetatik, kasu askotan, BEP eta ingurumenaren aldagaia eskutik doazela esan genezake, planteatutako irtenbide berritzaile askok ingurumen- eta gizarte-onurak eragiten baitituzte. Horregatik, Erosketa Publiko Berdea eta Berrikuntzaren Erosketa Publikoa prozedura bakar batean konbinatu daitezkeen bi irudi dira kontratazio publikoaren barnean.

### **SEKTORE GARRANTZITSUAK**

BEP ez da produktu edo zerbitzu jakin batera mugatzen, mota guztietako erosketak eta kontratazioak har baititzake barne. Ia sektore guztietan gauzatu daitekeen jarduketa bat izan arren (segurtasuna, garraioa, IKT, ekonomia berdea...), osasun-sektorean Berrikuntzaren Erosketa Publikora maiz jotzen dela azpimarratu behar da. Izan ere, sektore horretan etengabe egiten dira aurrerapenak, eta horrenbestez, eskaintzen dituzten materialek eta zerbitzuek egokituta egon behar dute.

## KONTRATUGILEA

Osakidetza, Euskal Osasun Zerbitzua.

## BERRIKUNTZA

Kronikotasunarekin eta zahartzearekin lotutako hiru prozesu.

## PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Osakidetzak, Kronikbasque Programaren bitartez, hiru prozedura gauzatu ditu **Teknologia Berritzailearen Erosketa Publikoarekin lotuta**.

**Hiru prozesu pilotu** horiek kronikotasunarekin eta zahartzearekin lotuta daude, honako hauekin, hain zuzen: Paziente kronikoarentzako etxeko laguntzarekin; mugitzen den paziente kronikoarentzako laguntzarekin; eta kronikotasun-estrategiarako profesionalen eta herritarren sentsibilizazioarekin eta aktibazioarekin.

Proiektu horiek garatzeko, hainbat mailako lankidetzaren egon da: herri-administrazioaren eta hornitzailearen artean; bestalde, zenbait herri-administrazioek produktuaren baterako garapena partekatzen dute (Eusko Jaurlaritzaren, Osakidetza...). Azkenik, hainbat enpresak elkarrekin lan egin dute epe luzearako irtenbide jasagarriak garatu eta finkatu ahal izateko.

BEP horren emaitza gisa lortutako produktuak edo zerbitzuak prozesua irabazi zuten enpresek merkaturatzen dituzte, herri-administrazioari royalty batzuk ematearen truke, baita administrazioak berak ere, Bioef fundazioaren (Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna eusko fundazioa) bitartez; hark lizitazioetan proposatutako I+G+b arloko **jabetza intelektualari** balioa emateko funtzioa izan zuen.

Kronikoen estrategia hedatzeari dagokionez, sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-ekintzak martxan jartzeko irtenbide metodologikoa eta teknikoa da berrikuntza.

## KONTRATUGILEA

Sestao Berri (Eusko Jaurlaritza eta Sestaoko Udala).

## BERRIKUNTZA

Ia zero energia kontsumitzen duten materialak.

## PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Sestao Berri, gizarte eta hirigintza arloko leheneratzea artikulatzen duen eta eraikinen hirigintza-mailako birgaitzea sustatzen duen sozietate publikoak PAPIRUS proiektu europarrean parte hartzen du; azken horrek irtenbide berritzaileak sustatu, ezarri eta baliozkotzen ditu, eta hala, eraikuntza jasagarria egitea ahalbidetzen dio Europako Erkidegoari.

2015eko martxoan, ia zero energia kontsumitzen duten materialen hornidurarako **lizitazio-deialdia** iragarri zen Sestaoko eraikin bat konpondu eta eraikitzeko.

Lizitazio-deialdi hori martxan jarri aurretik, **merkatuaren kontsulta** egin da. Kontsulta horri esker, erakunde publikoek «**elkarrizketa tekniko**» bat garatu ahal izan dute ustezko hornitzaileekin, eta horien aldetik gomendio erabilgarriak jaso ahal izan dituzte lizitazioa prestatu ahal izateko; gainera, hornitzaile horiek beren proposamenak prestatzeko beharrezko ezagutzak bereganatu dituzte.

PAPIRUSek Sestaon egindako erosketak honako hauetan oinarritzen dira: Energia-galerak murriztuko dituzten teknologiak eta irtenbideak, eraikinetako inguratzaile opakoaren bitartez. Eta, leihoen bitartez, neguan energia-galerak murrizteko eta udan berorik ez sartzeko teknologiak eta irtenbideak.

Merkatuari  
kontsulta egin  
ostean, erakunde  
kontratugileak  
aukera desberdinen  
erabilgarritasunari, kostuari,  
inplikazio praktikoei eta  
abarrei buruzko ezagutza  
sakona eta zehatza  
beregantatu du.

## KONTRATUGILEA

Bilboko Udala.

## BERRIKUNTZA

*In situ* kutsatutako lurzoruen trataera.

## PROZESUAREN DESKRIAPENA

Bilboko Udala –Europako Brodise proiektuan parte hartzen du Europako beste herri-administrazio parte-hartzaile batzuekin batera– azterketa baten buru da, eta haren bitartez, lurzoru kutsatuak tratatzeko formula bat planteatu nahi da, lurrak beste leku batera bidali beharrik izan gabe.

Udalak **elkarrizketa tekniko** bat gauzatuko du, irailean, esparru horretako ingurune teknologikoa ezagutzeko helburuarekin. Ikerketak iraungo dituen 20 hilabete horiek igaro ostean, Zorrozaurre gunean aplikatuko den amaierako formula patentatuko da, iragan industrialeko eremua.

Kutsaduraren aurkako tratamenduaz gain, Brodise proiektuak gida europar bat eragingo du, baita kutsaduraren aurkako web-orri bat eta gai horri buruzko nazioarteko biltzar bat ere; azken hori 2016ko irailean egingo da, Bizkaiko hiriburuan.

Horretarako, **erosle publikoen partzuergo** bat sustatu da, hura jakitera eman, ezagutza partekatu eta zehaztaperen komunak bereganatu eta prestatzeko premia komunak kontuan izateko helburuarekin.

Ikerketak  
hogei  
hilabetetan zehar  
garatuko dira, eta  
helburua amaierako  
tratamenduaren  
patentea lortzea  
izango da.

## KONTRATUGILEA

Erasmus University Medical Center, Herbehereak.

## BERRIKUNTZA

Oheak garbitzeko sistema robotikoaren instalazioa .

## PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Kontratazio hori egiteko, **merkatuaren kontsulta** egin aurretik emaitzen oinarritzko baldintzak zehaztuko dituen lantalde bat sortu behar da. Merkatuari ospitaleak dituen premien eta haren eskaera potentzialaren inguruko ikuspegia eman dion kontsulta egin ostean, kontratazioa abiarazi da.

Kasu honetan, **elkarrizketa lehiakorraren** prozedura aukeratu da. Erasmus Unibertsitateko Osasun Zentroak irizpide jakin batzuk finkatu ditu oheak garbitzeko sistema berriari dagokionez, eta horietako bat karbono-aztarna da. Aldez aurretiko kalifikazio-fasea igaro zuten operadoreei elkarrizketa lehiakorraren lehen txandan parte hartzera gonbidatu zitzairen. Bertan, operadore-kopurua bira murriztu zen, eta azkenean horiek jaso zuten eskaintza bat aurkezteko gonbidapena.

Bi operadore horietatik, IMS Medical konpainiaren eskaintza aukeratu zen; hark automobilgintza-sektoreko teknologia osasun-esparrura egokitu zuen, oheak garbitu ahal izateko, hain zuzen.

Amaierako kontratuak hasierako proba-epe bat du, hura ospitaletako sistemetan aplikatu ostean, irtenbidea balidagarria dela berresteko helburuarekin.

Jabetza-  
kostuetan  
balioetsitako  
murrizketa % 28koa  
da, eta CO<sub>2</sub> isurpenen  
balioetsitako  
murrizketa, berriz,  
% 65koa.

## KONTRATUGILEA

Galiziako Osasun Zerbitzua (Sergas), Espainia.

## BERRIKUNTZA

Programak: «Hospital 2050» eta «Innova Saùde».

## PROZESUAREN DESKRIKAPENA

«Innova Saùde» eta «Hospital 2015» osasun-berrikuntzarako proiektuen esparruan, Sergas Osasun Zerbitzuak **irtenbide berritzaileak proposatzeko deialdi ireki** bat jarri du martxan.

Proiektu horiek zenbait azpi-proiektuz osatuta daude, eta operadoreek irtenbide berritzaileen beren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte 2012tik 2015era. Baldintza eta zehaztapen teknikoak Sergas Osasun Zerbitzuak ezarriko ditu, azpi-proiektuen fitxen bitartez.

Deialdi hau egiteko, **eskaera goiztiarreko mapa** bat erabili da, eta hari esker, Administrazioaren premiak aurreratu ahal izan zaizkio merkatuari.

Sergas Osasun Zerbitzuak aurkeztutako proposamenak aztertzen ditu eta horiek azpi-proiektuen garapen- eta exekuzio-prozesuan erabil ditzake, definizioan nahiz irismenean. Proposamenen azterketa eta hautaketa urtean lau aldiz egiten da.

Irizpideak zehaztu ostean, hau da, zehaztapen teknikoak beharrezko zehaztapen-mailarekin zehaztuta daudenean, eta proposamenak hautatu ostean, kontratazioa egiten da; bertan, berrikuntza eta goi-mailako teknologiaren txertaketa alderdi positibo gisa baloratzen dira.

Berrikuntza  
administrazio  
prozeduran,  
bai diseinu eta  
prestakuntza fasean,  
bai exekuzio  
fasean.

### KONTRATUGILEA

Resah (Ospitaleko Erosketen Frantziako Sarea).

### BERRIKUNTZA

Elikagaien ontzi eko-berritzaileen eta lotutako birziklatze-zerbitzuen lizitazioa .

### KONTRATUGILEA

Rawicz-eko eskualde-ospitalea, Polonia.

### BERRIKUNTZA

Uniformeen errendimendua hobetzen duten zuntz biologikoak.

### KONTRATUGILEA

Detmold-eko Udala, Alemania.

### BERRIKUNTZA

Atmosferako kutsadura murrizteko, hormigoi fotokatalizatzailea erabiltzea.

Proiektuetan eta kasu praktikoetan garatzen diren gaiak era askotakoak dira: osasuna, eraikuntza, ostalaritza, argiztapena, garraioa... Dena den, proiektu horien existentziak ez du Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren ekintza mugatzen, izan ere, Berrikuntzaren Erosketa Publikoa bestelako produktu eta zerbitzutan eman daiteke.

Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren alde Europar Batasunak egindako apustuari esker, gaur egun badaude Europar funtsarekin finantziatutako proiektu eta kasu praktiko asko.

## ESTEKAK ETA DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)
- [www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)
- [www.udalsarea21.net](http://www.udalsarea21.net)
- [http://ec.europa.eu/environment/gpp/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/environment/gpp/index_en.htm)
- <https://www.innovation-procurement.org/>
- <http://bit.ly/1Gs1Ls1>
- <http://bit.ly/1K7VSX7>
- <http://bit.ly/1EErBJb>

Edozein  
iruzkin, ekarpen  
edo iradokizun  
egiteko zuzendu  
honako helbide  
elektroniko honetara:

[compra.verde@  
ihobe.eus](mailto:compra.verde@ihobe.eus)



IDEIEN KOADERNOA

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)  
[www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)  
[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)  
[compra.verde@ihobe.eus](mailto:compra.verde@ihobe.eus)

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN ETA LURRALDE  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y POLÍTICA TERRITORIAL